



INGURUMEN IKUSKAPENeko JARDUEREN MEMORIA URTEA 2014

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza
Administrazio Unitatea: Ingurumen Ikuskaritza

Aurkibidea

1. Sarrera
2. Proiektuen zerrenda
 - 2.1 Proiektua: IPPC 2014 jardueren segimendua ikuskatzea
 - 2.2 Proiektua: EEH eta TEEH proiektuen segimendua egitea
 - 2.3 Proiektua: Zabortegira sartzen diren hondakinak eta betelanelako materialak kontrolatzea
 - 2.4 Proiektua: Hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduerak itxi ostean
 - 2.5 Proiektua: Zepa siderurgiko eta metalurgikoak kudeatzea
 - 2.6 Proiektua: Donostialdeako usainak
 - 2.7 Proiektua: Pasaiaiko portua
 - 2.8 Proiektua: Muskiz-Abanto-Zierbena
 - 2.9 Proiektua: Urola Garaia -Legazpi – Zumarraga
 - 2.10 Proiektua: Ohartarazpenak eta larrialdiak kudeatzea
3. Emaitzak
4. Ondorioak

2015eko abuztua

1. Sarrera

Memoria honek azaltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Ikuskaritza Zerbitzuak 2014 ekitaldirako zehaztutako Ingurumen Ikuskaritza eta Kontrolerako Programari lotuta egindako jarduerak.

2. Proiektuen zerrenda

Jarraian jasotzen dira 2014. ekitaldian gauzatutako ikuskaritza-proiektuen zerrenda, horietako bakoitzaren jarduerak eta emaitzak, eta emaitza horiek aztertzetik ateratako ondorio nagusiak.

2.1.- Proiektua: IPPC 2014 jardueren segimendua ikuskatzea

Erreferentzia: 2014/-01

2.1.2.- Jarduerak

99 enpresa ikuskatu dira "in situ", baita horietako ingurumena zaintzeko planaren agiriak aztertu ere. Guztira, programatutako 9 enpresa aldi baterako EEE egoeran edo desagertze-fasean daude, edo 2014an itxi dute; horrez gainera, 11 enpresa ikuskatzeke daude eta 2015eko plangintzan sartuko dira.

Urteroko ikuskapena egiten zaien enpresetatik 26 ikuskatu dira; 3 itxita edo lehiaketa-fasean zeuden eta lau 2015eko lehen hiruhileko plangintzan sartuko dira.

Bi urtean behineko ikuskapen-maiztasuna duten enpresetatik, berriz, 42 ikuskatu dira; 4 itxita, EEE egoeran edo lehiaketa-fasean zeuden, eta 3 ikuskatzeke gelditu dira, 2015eko plangintzan sartuko direnak.

Hiru urtean behineko maiztasuna duten enpresei dagokienez, 31 ikuskatu dira; 2 itxita, EEE egoeran edo lehiaketa-fasean zeuden, eta 4 ikuskatzeke gelditu dira, 2015eko plangintzan sartuko direnak.

Ikuskapen bakoitzari zegozkion aktak egin dira, eta bidali zaizkie enpresei ikuskapen horiekin lotutako txostenak eta errekerimenduak, hala zegokionean.

2.1.2.- Ondorioak


Plangintzaren %91 bete da eta enpresen ingurumen-arriskuaren araberako hurrenkeran ikuskatu dira enpresak.

Nabarmentzekoa da ikuskatutako enpresen %86k betetze-maila altua dutela eta gainerakoek, berriz, ertaina-baxua edo baxua. Arriskuen ebaluazioari dagokienez, zertxobait igo da arrisku altuko eta urteroko ikuskapen-maiztasuneko enpresen kopurua: 33tik 35era.

Proiektu honi dagokionez, aintzat hartu behar da IPPC instalazioen ikuskaritza kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuko araudian erregulatzeko dela eta, era berean, jarduera bakoitzari loturiko ingurumen arriskuaren arabera, araudi berdinak finkatzen duela ikuskaritza bisiten maiztasunak zenbateko izan behar duen. Hori dela eta, aipatutakoa urtero dagokion programan jaso beharreko proiektua da.


IPPC jardueren ikuskapen-proiektua - Datu orokorrak

Ikuskatutako jarduerakop.	Ez-betetzerik gabe	Ez-betetze batzuekin.
99	45	54




Arrisku Indizearen datuak

GUZTIRA	AI 1	AI 2	AI 3	AI 4	AI 5
99	6	28	30	28	7



Arrisku-kategoriaren datuak

GUZTIRA	AK 1	AK 2	AK 3
99	35	30	34



2.2.- Proiektua: EEH eta TEEH proiektuen segimendua egitea

Erreferentzia: 2014/-02

2.2.2.- Jarduerak

Tresna elektriko eta elektronikoen hondarrak (TEEH).

Proiektuarekin lotutako ikuskapen-irizpideak zehaztea.

Baterako ikuskapenetako jarduna koordinatzea Ertzaintzaren Ingurumen Unitatearekin lankidetzan.

Ikuskapen fisikoa egitea Ertzaintzarekin batera koordinatuta hautatutako instalazioetan. Zehazki, 16 instalazio bisitatu dira paraleloki egun berean.

Errekerimenduak egitea kasu guztietan, baimenik gabeko hondakinen kudeaketa eta,

beste kasu batzuetan, agintaritzek ezarritako baldintzak ez betetzea konpontzeko.

Bidalitako agiriak aztertzea eta proposatutako hondakinen kudeaketari oniritzia eman edo ez eman ebakitzea. Zehazki, 15 kasutan oniritzia eman da, eta kasu bakar batean baztertu da aurkeztutako hondakinen kudeaketari buruzko proposamena.

Eraikuntza- eta eraispén-hondakinak (EEH)

Eraispén-prozesuan dauden hornikuntza edo espazio garrantzitsuak zerrendatzea.

Ikuskapen-bisitaldiak egitea. 2014an 3 ikuskapen egin dira.

Errekerimenduak egitea.

2.2.2.- Ondorioak

TEEHak

Plangintzaren %100 bete da.

Proposatutako helburua baimendutako kudeaketa-ildoetatik desbideratzen diren TEEHak hautematea dela aintzat hartuta, jardunak gauzatu ondoren nabarmentzekoa da betetze-maila oso baxua dela. Hona hemen ikuskapenaren emaitza:

- Bisitatutako instalazioen %100ean hauteman dira legeak eta baimenek ezarritakoa bete gabe kudeatzen diren TEEHak.
- Bisitatutako instalazioen %40an, baimenik gabeko hondakin-kudeaketako jarduerak egiten dira, eta horiek geldiarazi behar izan dira, baimena lortu arte.
- Bisitatutako instalazioen %100ean eskatu zaie bisitaldian zerrendatutako hondakinen inbentarioa, kudeaketa-proposamena eta eta hautemandako TEEHen kudeaketa, Ingurumen Organoaren oniritziarekin. Gainera, azken hiruhilekoan kudeatu eta baztertutako hondakinen erregistroak bidaltzeko eskatu zaie.

2015. ekitaldian emango da bukatutzat proiektua, dagozkien zehapen-espedienteak proposatuta.

EEHak

Plangintzaren %95 bete da.

Proposatutako helburua eraisketa-lanetan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinen desbideratzea hautematea dela aintzat hartuta, jardunak gauzatu ondoren nabarmentzekoa da bisitatutako instalazioetan betetze-maila oso ertaina-baxua dela. Bisitatutako instalazioen %66k modu egokian kudeatzen zituzten hondakinak ikuskapenaren unean, baina aztertutako agirietan ere. Instalazioen %33an dagoeneko konpondu duten desbideratzeren bat hauteman zen.

Jarduketa-ildo hau irekita gelditzen da. 2015ean eraispén-obrak hauteman eta ikuskatzen jarraituko dugu, bai eta sortutako hondakinez egindako kudeaketa fiskalizatzen ere.

2.3.- Proiektua: Zabortegira sartzen diren hondakinak eta betelanetako materialak kontrolatzea

Erreferentzia: 2014/-03

2.3.2.- Jarduerak

Betelanetako sarrera-kontrola

9 ikuskapen egin dira betelanetan. Ikuskapen horiek dagozkien errekerimenduak eratu dituzte eta, bi kasutan, zehapen-espeditentea irekitzeko proposamena.

Zabortegietako sarrera-kontrola

Egin beharreko jardueren prozedura eta ikuskapen-irizpideak zehaztu dira.

EAEko hondakin arrisku gabeak kudeatzeko baimendutako zabortegi guztiak ikuskatu dira. Zehazki, 15 zabortegiren ikuskapenak egin dira lehen fasearen barruan.

Emaitzen txostena egin ondoren, arau-haustek hauteman diren enpresetara dagozkien errekerimenduak bidali dira. Horrez gainera, 3 zehapen-espeditente irekitzea proposatu da.

Aurrez bisitatutako 15 zabortegiak bigarren aldiz ikuskatu dira, IPPC jardueren jarraipena egiteko ikuskapen-proiektuarekin paraleloan. Errekerimendua bidali zaie ikuskatutako enpresa guztiei. Era beran, beste zehapen-espeditente bat irekitzea proposatu da, lehen fasean proposatutako hiruez gainera.

2.3.2.- Ondorioak

Betelanetako sarrera-kontrola

Plangintza%100ean bete da. Aintzat hartuta proposatutako helburua EAEn baimendutako betelan nagusietara hondakinen desbideratzerik ez egotea dela, jardunak gauzatu ondoren nabarmentzekoa da betetze-maila ertaina dela.

Lortutako emaitzekin (bisitatutako betelaneen %50etan ez da desbideratzerik hauteman) eta arau-haustek hautemandako enpresetara errekerimenduak bidali ondoren, proiektua bukatutzat eman daiteke. Hala eta guztiz ere, enpresek arau-haustek zuzentzeko aurkezten dituzten ekintza-planak aztertuko dira.

Zabortegietako sarrera-kontrola

Plangintzaren %100 bete da.

Aintzat hartuta proposatutako helburua EAEn jardunean dauden IPPC Legearen mendeko zabortegi aktibo guztietan sarrera-kontrol egoki bat egotea dela, ikuskapen-ekintzak gauzatu ondoren esan behar da betetze-maila baxua dela.

Lehen fasean, ikuskatutako zabortegi guztietan dago hondakinen sarrera-kontrolarekin lotutako desbideratzea. Horrela, betetze-maila baxua da sektorean hondakinen sarrera-kontrolari dagokionez.

2015ean ekintza gehiago egingo dira betetze-maila baxua duten instalazioetan,

proposatutako helburua lortze aldera.

2.4.- Proiektua: Hondakinak eta materiak kudeatzea, jarduerak itxi ostean

Erreferentzia: 2014-04

2.4.2.- Jarduerak

Urtearen hasieran gauzatutako lehen fasean 45 ikuskapen egin dira. Bigarren fasean, berriz, 14 ikuskapen. Guztira, 21 errekerimendu bidali dira.

Hainbat konkurtso-administratzaileekin harremanetan jarri gara eta jarduketa-prozedura bat ezarri da enpresak lehiaketa-fasean daudenerako.

EEE egoeran dauden edo itxi duten enpresetan ingurumen-arriskua sailkatzeko sistema bat eratu da, egindako ikuskapen-kudeaketaren ondoren arriskua murrizte aldera.

2.4.2.- Ondorioak

Ikuskapenak egin ondoren, horietako bi enpresatan arrisku-maila ALTUTIK BAXURA jaitzi da.

Arrisku BAXUKOTZAT jotako 8 ikuskapenetan hondakinak atera dira. Gainerako enpresak mantenduko dira proiektuaren zerrendan datorren urterako, aurtengo kudeaketa eta jarraipena kontuan hartuz.

Agerian gelditu da batzuetan zaila dela itxitako jardueraren jabea aurkitzea. Era berean, zaila da konkurtso-administratzaileek beren gain hartzea itxitako enpresan gelditu diren eta ingurumena kaltetu dezaketen lehengai eta hondakinen kudeaketaren erantzukizuna.

Hainbat urteko proiektua denez gero, datozen urteetan jarraipena izango du.

2.5.- Proiektua: Zepa siderurgiko eta metalurgikoak kudeatzea

Erreferentzia: 2014/-05

2.5.2.- Jarduerak

Ez da ikuskapenik ez bestelako jarduerarik gauzatu. Ingurumen Sailburuordetzan dauden agiriak aztertu dira, kasu batzuetan.

2.5.2.- Ondorioak

Proiektua 2015eko plangintzara igaro da.

2.6.- Proiektua: Donostialdeako usainak

Erreferentzia: 2014/-06

2.6.1.- Jarduerak

Donostialdeako usainek eragindako kexa-erregistroa egiten jarraitu da.

EHUko Kimika eta Ingurumen Departamentua kontratatu da lan hau egiteko: *Hernaniko Zicuñaga papertegiaren isurketa usaintsuen hedapen atmosferikoaren ereduak ezartzea*. Abenduan txosten partziala aurkeztu zen eta urtarrilean aurkeztuko da behin betikoa.

Hiru bilera egin dira Donostialdeako usainen mahaiko teknikari-taldearekin. Teknikari-taldean, Donostiako Udaletxeak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Osasunaren sailak parte hartzen dituzte.

Bilera teknikoak egin dira, orobat, inplikaturako enpresekin.

2.6.2.- Ondorioak

2014an jasotako kexa-kopurua eta aurreko urteetako alderatuz gero, nabarmen murriztu dela ikusten da (%60), batetik enpresek egindako hobekuntzen ondorioz eta, bestetik, klima-baldintzak lagungarriak izan direlako.

Ereduak ezartzeko ikerlanaren balioespena egiteke dago, behin betiko txostena aurkeztu arte.

Proiektuaren %90 gauzaturat eman da.

2.7.- Proiektua: Paisaiako portua

Erreferentzia: 2014/-07

2.7.2.- Jarduerak

Paisaiako badiaren inguruan Ingurumen Diagnostika egin zenean beharrezkotzat jotako 34 ekintzetatik 12 gauzatu dira; 15 martxan jarri dira eta beste 7 oraindik ikertzen ari dira abiarazi baino lehen.

Horrez gainera, aktiboki parte hartu dugu Paisaiako badiaren ingurua hobetzeko eraturako mahai tekniko eta politikoaren bilerak prestatzeko lanetan (4 bilera tekniko eta 2 politiko).

Gauzaturako ekintzen artean aipatzekoak dira, batetik, Donibaneko saneamendu-proiektua egiteko hitzarmena sinatzea eta, bestetik, portuaren inguruan kokaturako kabinen emaitzetan oinarrituta PM10 partikulen kutsadurari buruzko txostena egitea. Halaber, kutsaturako eremuetako batean proiektu pilotu bat egitea erabaki da badiara urak isuri aurretik (garbiketak edo euriak eramanda) dekantagailu eta bereizgailu bat jartzeko, eta Paisaiako Zentral Termikoaren ikatz-parkeko lurzoruaren kalitateari buruzko azterlana egin da, eremu hori Portu Agintaritzari itzultzeko.

Bestalde, egiaztatu da Lezoko Sagastimendi industria-guneko saneamendu-urak Añarbeko uren kolektorera lotzeko lanak gauzatu direla.

Immisio-maila neurtzeko bi kanpaina egin dira airearen kalitatea zein den jakiteko, bata Errenteriako Don Bosco eskolan eta bestea Lezoko Zuhaitzia parkean.

Urte guztian zehar, kexak erregistratzen jarraitu dute Paisaiako Badiako mahaian parte hartzen duten administrazio guztiek.

2.7.2.- Ondorioak

2014an gora egin du kexa-kopuruak 2013arekin alderatuta. Portuko jarduera areagotzeak eta kexak jasotzeko metodoak eragin dute, nagusiki, igoera hori. Gainera, zaratagatiko kexen igoera nabarmena izan da eta, horrenbestez, ingurumen-alderdi horretan lan egin beharko da etorkizunean.

Proiektuaren %70 gauzatu egin da.

2.8.- Proiektua: Muskiz-Abanto-Zierbena

Erreferentzia: 2014/-08

2.8.2.- Jarduerak

Petronorren jarduera ikuskatzea eta ingurumen-eskakizunen betetze-maila ebaluatzea (urteroko jarraipen-ikuskapena 2014ko uztailaren 22an egin zen).

Ingurumen-kontrolerako ikuskapena arruntak ez diren funtzionamendu-baldintzetan (lau bisitaldi egin dira izandako gertakarien harira).

Immisio-neurketa egiteko kanpaina abian jartzea eragindako eremuan, eta lortutako datuak ebaluatzea. Airearen kalitate-sarearen datuak aztertzen jarraitu da, eta Gasak Masak unitate mugikorrek datuei buruzko ikerketa hasi da. Uste da 2015ko bigarren seihilekorako azterlanaren emaitzak eskuragarri izango direla.

Komunikazioa-elkarrizketa (hainbat bilera egin dira Muskiz, Abanto-Zierbena eta Zierbenako udalekin).

2.8.2.- Ondorioak

Proiektuaren %80 bete dela kalkulatzen da. Eremuko industria-jardueraren ingurumen-kontrola altua da. Hala eta guztiz ere, egiaztatu da sortutako istripuek administrazio-ahalegin handia sortu dutela ebaluazioari, ikuskapenari eta komunikazioari dagokienez. Biztanleriarekiko komunikazioari dagokionez, adierazgarria deritzogu, gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren webgunearen bitartez airearen kalitate-sarearen datuak denbora errealean kontsultatu ahal izateari. 2015erako giltzarria izango da Airearen Kalitatearen Ebaluazioa eta Osasunerako Arriskuen Ebaluazioa ikerlana bukatzea. 2015eko bigarren seihilekoan amaitzea espero da, eta behar bezala jakinarazi beharko zaio gizarteari.

Elkarrizketari dagokionez, egokitzen joan da udaletako ingurumen-batzordeen eta inplikaturako enpresek sustatutako ekimenaren bidez bideratzea.

2.9.- Proiektua: Urola Garaia -Legazpi - Zumarraga

Erreferentzia: 2014/-09

2.9.2.- Jarduerak

Airearen kalitatearen etengabeko jarraipena egin da Zumarragan. Esan behar da 2014ko otsailean PM2,5 neurgailua instalatu zela kabinan.

Zumarragako ARCELORMITTAL enpresaren jarduera ikuskatu da, bere Integratutako Ingurumen Baimenaren (IIB) eskakizunak zer mailatan betetzen dituen jakiteko, eta etengabeko jarraipena egin zaie enpresaren jarraiko neurgailuko partikulen balioei, inguru hartako partikula-igorpenari ekarpen handiena egiten dion enpresatzat jotzen

baita.

Era berean, partikulen mailari eragiten dioten beste iturri batzuetan (nekazaritza eta basogintzako hondakinak erretzea, lanak, zirkulazioa, etab.) aztertu dira.

2.9.2.- Ondorioak

Airearen kalitateko araudia betetzen da. Hauek dira batez besteko datuak: PM_{2,5} = 11 µg/m³, < 25 µg/m³ eta PM₁₀ = 30 µg/m³ < 40 µg/m³. Eguneroko batez bestekoa gainditu den egunen kopurua araudian jasotako gehienekotik (35) beherakoa da.

Nolanahi ere, inguru hartako iturriak zaindu eta ikuskatzeari eustea beharrezkotzat jotzen da, izan ere, inguru hori EAEko beste batzuk baino eragin-ahalmen handiagokoa da, igorpen-, orografia- eta meteorologia-baldintzak direla medio.

2.10.- Proiektua: Ohartarazpenak eta larrialdiak kudeatzea.

Erreferentzia: 2014/-10

2.10.2.- Jarduerak


EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen ohartarazpen eta larrialdiei behar bezalako erantzuna eman zaie urteko 365 egunetan, 24 orduz.

Ingurumen-ikuskaritzako organoaren teknikariek zuzendu eta koordinatu dute kontratatutako bi laguntzaile teknikoek jarduna, beren asteroko gardien barruan.

Guztira, 387 ohartarazpen kudeatu dira; horietatik, 71 ohartarazpenek teknikari bat eragindako ingurunera joatea eskatu dute.


Hona hemen lurralde historikoaren arabera banaketa:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
OHARTARAZPEN-KOP.	56	282	49




Eragindako inguruaren arabera haxe da banaketa:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
AIREA	29	226	24
INGURU NATURALA	4	24	8
LURZORUA	15	25	11
URA	8	7	6



Sortutako ingurumen-eraginaren arabera, hauxe da banaketa:

	Errepideko istripua	Isuririk airera	Sutea	Usainak	Hondakin arriskutsuak	Zarata	Lurzorua	Uretarako isuria	Beste batzuk
ARABA	2	21	4	5	4	4	4	6	6
BIZKAIA	4	72	10	139	7	15	17	10	8
GIPUZKOA	3	16	4	2	6	3	9	4	2



2.10.2.- Ondorioak

2014an ingurumen-eragina zuten ohartarazpen eta kexa guztiei eman zaie erantzuna. Arruntzat jo dugu Araban eta Gipuzkoan egindako ohartarazpen kopurua eta ezaugarriak. Aipatzekoa da kexa-kopuru handi bat Bizkaian egin dela eta aireari eragiten diola, ainerako igorpenak eta usainak, batez ere, eta zarata, neurri txikiagoan. Egindako analisiaren ondoren, berretsi da kexak honako herri hauetatik datozela: Abanto eta Zierbena (42 ohartarazpen), Muskiz (65), eta Ortuella (29).

IPPC eta Muskiz-Abanto-Zierbenako jarraipen-ikuskapeneko proiektuen barruan, jarraipen berezia egiten ari zaie potentzialki ohartarazpen eta kexa gehien sor dezaketen enpresei.

2.11.- Proiektua: REACH 2014

Erreferentzia: 2014/-11

2.11.1.- Jarduerak

Produktu-berreskuratzaileen proiektuaren barruan, programatutako 22 enpresetatik 18 ikuskatu dira.

Gainera, beste 4 enpresek bidalitako REACH dokumentazioak aztertu dira (horietatik hiru IPPC legearen izapideen barruan). Hasiera batean, ez da beharrezkotzat jo ikuskapen-bisitadirik egitea.

2.11.2.- Ondorioak

Oro har, betetze-maila baxua da.

Egiaztatu da neurri handi batean plastikoa berreskuratzen diharduten enpresek ez dituztela ezagutzen REACH-ari dagozkion betebeharrak.

Proiektuaren azken txostena egin da, ondorio nagusiak jasotzen dituena.

3. Emaitzak

Proiektuak

Proiektuaren erref.	Programatutako jarduerak	Eginda (%)
2014-01	119	91%
2014-02	19	100%
2014-03	27	100%
2014-04	45	100%
2014-05	15	0%
2014-06	2	90%
2014-07	No aplica	No aplica
2014-08	1	80%
2014-09	1	100%
2014-10	No aplica	No aplica
2014-11	22	95%

Proiektu eta ikuskapen guztiak

Proiektuaren erref.	Ikuskatutako jarduera-kop.	Egindako ikuskapen-kop.
2014-01	99	180
2014-02	19	19
2014-03	27	36
2014-04	45	45
2014-05	0	0
2014-06	2	2
2014-07	0	0
2014-08	1	1
2014-09	1	1
2014-10	0	0
2014-11	18	22
Guztira	212	306

Jarduera guztiak

Proiektu-kop.	Ikuskatutako jarduera-kop.	Egindako ikuskapen-kop.	Bisitaldidun ikuskapen-kop.	Agirizko ikuskapen-kop.	Zaintzako ikuskapen-kop.
11	212	306	212	89	5

4. Ondorioak

Oro har, programatutako proiektu guztiak gauzatu dira, zepa-kontrolari buruzkoa izan ezik (2015eko plangintzan sartu dugu).

Lehentasunezko proiektua IPPC ikuskapenen jarraipena izan da aurten ere, eta gainerako proiektuak ikuskaritza-unitatean eskuragarri zeuden baliabideen arabera gauzatu dira. Proiektuetatik asko urte anitzekoak dira eta, horrenbestez, datozen urteetan garatzen jarraituko ditugu.

2014an bukatutzat jo dira betelaren sarrera kudeatzeko proiektuak, REACH 2014 proiektua eta Muskiz-Abanto-Zierbena eta Urola-Legazpi-Zumarraga proiektuak; izan ere, guztiz bukatuta ez dauden arren, proiektu horiekin lotutako enpresak 2015eko IPPC jarraipen-ikuskaritzako proiektura igaroko dira kontrol-lanetarako, jarraipen bereziko enpresa gisara.